

# Nafarkaria

• ostirala • 1997ko urriaren 31

**Egunkaria**


**Gehigarri honetan**



**Folk ametsetan zikloaren hasiera** • Lekunberrin hasiko da gaur.

**Jon Pellizer** • Sukaldaritza eta euskara uztartuz.

**Gure aukerak** • Hainbat erakusketa ikusteko aukera Iruñean.



**Anorexia  
eta bulimia,  
herrialdean gora  
doazen gaixotasunak**





# Lekunberri • Folk doinuekin, amets egiteko aukera

Euskal Herria, Madagaskar eta Indiako doinuak entzungo dira aurten

**Folk Ametsetan kanpainan Euskal Herriko ordezkariak Joseba Tapia eta Ruper Ordorika izango dira: Zaharrak Berri izeneko muntaia eskainiko dute.**



Joseba Tapia eta Ruper Ordorika, Hiru Trukuren emanaldi batean, Bixente Martinezekin.

FRANCISCO VALVERDE

**A**ZKENALDI HONETAN BIXENTE Martinezekin batera Hiru Trukun ibili ondoren, apustu berri batekin datozkigu oraingoan bi musikari handiok. Betiko abestiak erritmo eta doinu berriekin nahastu nahi izan dituzte. Horretarako beste zenbait musikariren laguntza izango dute. Leturia pandero jolea kasu. Iturri ezberdinetako gaiak uztartuko dituzte kontzertu honetan: Tapiak eskainiko dituen triki zaharraren doinuak eta Ruperren talde berriaren rock euskalduna.

India aldetik datorren Tapan Groupen erakargaririk handiena, oinutsik dantzatzeko duen neskatoa da. Kathak izeneko dantza da berak eskaintzen duena. Dantza horrek harreman zuzena du antzinatekin Katharekin (istorioak kontatzeko dohaina) eta Kathakekin (istorio horiek kontatzen zituztenak). Istorio horietan musika, dantza eta antzezpena bateratzen ziren, ikuskizun bitxi batean. Tapan Groupek ohitura zahar hori egungo pentsamendu eta sormenarekin nahastu du, erakargarritasuna areagotuz. Bere

herrian punta-puntako artista den Shinka Khare arituko da dantzan, hango beste kideen musikaren erritmoan.

Madagaskarren jaioa da Yves Rakotomalala izeneko musikaria. Baina 18 urte zituenetik Frantzia bizi da. Gazte-gaztetatik hasi zen bere melodiak asmatzen, iturri desberdinetako urak jaso eta gero: James Taylor, C.S.N. & Young eta Beatles berak, besteak beste. Adituek diotenez, bere doinuak europar eta ma'gash melodien elkarketa dira. Berezko sustraiak ditu, bai, baina europar, afrikar, india: eta Ekialde Urruneko musiken eragina ukalezina da.

Lekunberri, Irurtzun, Barañain, Elizondo, San Adrian eta Castejon dira kanpaina honetan

parte hartzen duten sei herriak. Zaharrak Berri, Rakoto eta Tapan Groupe dira Euskal Herriko, Madagaskarko eta Indiako folkaren erakusgarri.

Lekunberri emanaldiak gaueko 9etan izango dira Mitxauseña Kultur Etxean. Gaur Zaharrak Berriko arituko dira, bihar Tapan Groupekoak eta etzi Rakoto-koak.

Irururtzango kultur etxean, arratsaldeko 8:00etatik aurrera arituko dira musikari eta dantzariak. Gaur Rakoto, bihar Zaharrak Berri eta etzi Tapan Groupe.

Elizondon, ikuskizunak igandean izango dira, arratsaldeko 8:00etan. Aste honetan Zaharrak Berri taldea arituko da Arizkunen, datorren astean Tapan Group, eta hurrengoan Rakoto.

Barañainen, oster, atzo hasi zen kanpaina hau. Zaharrak Berrikoekin. Datorren ostegunean, arratsaldeko 8:00etan Tapan Group arituko da Udaletxeko Ekitaldi Anitzerako Gelan. Eta hurrengo ostegunean, ordu berean, Rakoto.

San Adrianen gaur hasiko da musika kanpaina hau: 9:30etatik aurrera arituko baitira Los Morochos taldekoak. Datorren ostiralean Tapan Groupekoek hartuko dute lekukoa, eta hilaren 14an Rakoto-koak.

Castejongo kultur etxean gaur 20:00etatik aurrera Tapan Group taldea. Bihar Rakotoren txanda izango da, eta etzi Los Morochosena.

→ Urko Aristi

## Bera

Euskaldunok abenturan zikloa hasiko da astelehenean

BERAKO EUSKARA BATZORDE-ak antolatuta lau hitzaldi eta diapositiba emanaldi izanen dira hurrengo bi asteetako astelehen eta asteazkenetan. *Euskaldunok abenturan* alderdi eta esperientzia arrunt ezberdinak kontatuko dituzte munduan barrena ibilitako jendeak.

Astelehenean *Itsasoari begira* hitzaldia emanen du Joxe Ramon Agirrek. Itsasontzian eginiko bidaiaren diapositibak eta esperientziak kontatuko ditu. Bigarren hitzaldia asteazkenean izanen da, hilak 5. Esther Mugerza eta Amaia Elosegi Turkiatik Birmaniara joan ziren bizikletan, eta bi emakumeren ikuspegitik planteatu dute hitzaldia. Hirugarrena azaroaren 10ean izanen da, astelehenean. Jon Sarasua bertsolariak, Amaia Anterok eta Kontxita Errok Guatemalan bizitakoa kontatuko dute. Sarasua eta Antero elkarrekin izan ziren, Errok, berriz, bertze bidai batean ezagutu zuen Hego Amerikako lurraldea. Bi esperientzia hauetatik ekonomikoki txirra baina kulturalki aberatsa den lurraldea ezagutzeko parada izanen da. Zikloari amaiera emateko, azaroaren 12an, asteazkena, Alaskatik Suaren Lurraldera bizikletaz egindako bidai kontatuko du Nandusek.

Ekitaldi guztiak Gure Txokoa elkartearen egoitzan, lamotenean egingen dira, 19:30etan.

→ Jon Abril

## Euskal Herrikoa

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



**B**ertsoak izanen ditut berriz ere xoko ttikiko protagonista, Euskal Herriko Txapelketa hasi baita, txapelketa handia! Tolosa, Aramaio, Hendaia, Ondarru eta Iruñeako kanporaketek eman behar zutena eman dute eta pronostikoak betez gainera. Azkeneko biak falta dira bakarrik, Getxo eta Zarautzekoak, eta azken honek batez ere, morboa eta espektazioa ziurtatuak ditu. Elizagoien, Irazu, Maia, Sarriegi, Sorozababal eta Urdangarín. Denak finalerdietako postu baten bila, ezustekoa emateko prest. Orain arte dena espero bezala dihoa. Iruñean jende guttiegi behar bada, baina bertzeran jende puska bildu da eta ikusleek ahotan zituzten bertsolariak dira aintziner

jarraituko dutenak, orain arte, behinik behin.

Txapelketan erabilitako formula batek bakarrik arrotu ditu hautsak: kartzelan hiru bertsolarik gai bati kantatzea eta bertze hiruk bertze bati. Kanporaketa guztietan bi gaiak nahiko desberdinak suertatu dira, batek bidea nahiko egina ematen zuen, bertzearekin dena egina zegoelarik. Honetaz gain, kartzelaren funtsa objektibitatea izan da beti, bertsolarien gai beraren aitzinean noal erantzuten duten ikusteko egin zen. Orain dela lau urte hori pixka bat aldatu bazen, orain erabat aldatu da eta trasuzui uzan duen erabilgarritasuna galdu du. Ikusleari begira egindako berrikuntza dugu, ikusleari begira entretenigarriago egiteko, baina horrek ez dio

bertsolariari mesederik egiten niren ustez.

Halaxe aldakuntzak beti dira positiboak eta hemendik lau urtera berriz ere aldatzeko aukera ematen du.

Orain arte berez, oztopo handirik gabeko bidea egin dugu. Iruñean izan genuen estropozu ttikia salbuespen, eta ez naiz ikasle eskasiaz ari. UPNko zinegotziaz ari naiz. Udalak kanporaketa bat Gaiarren egiteko baimena eman bazuen ere, aipatu zinegotziak ez zeuden horrekin bat ere ados nonbait. Zein ote arrazoia? Euskal Herria ez dela esistitzen, eta beraz, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa ezin egin eta are guttiago Nafarroan. Arrazoi honek partidu honen izanari ohore egiten dio.



Lizarra

Saihesbidearen proiektua eztabaidagai

PLATAFORMA OSATU DUTE EGU-  
notan Lizarrako Udaleko  
HB eta Lizarrako Kandida-  
tura Batua talde politikoei,  
Lizarrako Talde Ekologis-  
tak eta Gazte Asanbalda gi-  
zarte taldeek, saihesbidea-  
ren eragina jazoko duten  
hainbat udalek eta auziare-  
kin sentikortasuna eraku-  
tsi duten zenbait pertso-  
nak, bide horrek sor ditzake-  
en ingurugiro arazoak  
ikustarazteko. Plataforma  
joan den asteazkenean bil-  
du zen aurreneko, xede  
nagusi batekin: Nafarroako  
Gobernuari ingurugiro ara-  
zoak sor ditzaketen hainbat  
neurriren ikerketa eska-  
tzea, alegia. Neurri horien  
artean, saihesbidearen ta-  
xuketa eraldatuko duten  
hiru puntu azpimarratzen  
dira: Jurramendi magaleko  
artadia, Nobeletako bar-  
tzak eta Azketako tunela.  
Azkenari dagokionez, plata-  
formak saihesbidea luza-  
tzearen alde egiten du  
apustu, Azketako tunela  
pasatu arteraino.

Plataforma Lizarrako tal-  
de ekologistaren ekimenez  
eta bultzadaz osatu da, eta  
Asimistrazioaren aurrean  
bitarteko solaskide izan  
nahi du. «Gure asmoa Go-  
bernuari proiektuaren bi-  
deragarritasuna aztertuko  
duen eztabaida tekniko  
eskatzea da. Horretaz gain,  
«Administrazioak orain arte  
erakutsi duen jarrera ozto-  
patzailea salatzea eta bide-  
ak jorratzeko jokaera parte-  
hartzaila aldarrikatzea  
dira gure bertze helbu-  
ruak», aipatu dute talde  
ekologistako kideek.

→ Kristina Berasain

# Leitza • Euskal musika Polonian entzungai

Oso kontent bueltatu dira Asketa abesbatzako lagunak

**Leitzako Asketa  
abiesbatza Polonian  
izan da otsailaren  
14tik 26ra bitartean.  
Bidaia poloniarrek  
joan den otsailean  
egindako bisitaren  
ordaina izan da.**

**i**RAGAN URTEKO OTSAILEAN LEITZA-  
ko Asketa abesbatzak Zielona  
Gorako Unibertsitateko abesba-  
tza Euskal Herrira gonbidatu  
zuen, eta askok hango musika  
ezagutzeko aukera izan zuten. Po-  
loniako abesbatzak Leitza ez  
ezik Donostian, Lizarran eta Iru-  
ñean eskaini zituen kontzertuek  
arrakasta handia izan zuten, eta  
jendearen gustukoak izan ziren.  
Beraz hau ez da Asketa taldearen-  
tzat bidaia hutsa izan, Poloniako  
Abesbatzarekin egindako truka-  
keta bat baizik. Nekatuta baina  
oso kontent bueltatu dira Polo-  
niatik. Bidaia oso luzea iruditu  
zaien arren esperientzia oso ona  
eta benetan aberasgarria izan  
omen da. Euskal Herrian barna  
eta Katalunian kontzertuak  
eman izan dituzte, baina hau izan  
da hain urrutiraino egin duten le-  
hen irteera eta azkena ez izatea  
espero dute. Lau kontzertu eska-  
ni dituzte Polonian. Euskal musi-  
ka folklorikoa han ezagutarazteko  
asmoarekin abiatu ziren eta hel-  
burua lortu dutela uste dute  
abiesbatzako partaideek. Bertan  
euskal musika ez zuten ezagu-



Poloniako egonaldia oso atsegina izan da leitzarrentzat. Argazkian, Krakovian, hango musikariak antzuten.

• LUIS AZANZA

zuen, eta euskarari dagokionez,  
hizkutzat hori bazenik ere ez zeki-  
ten. Egile bat baino gehiagoren  
piezak abestu dituzte: gehienbat  
Sorozabalenak, haren 100. urteu-  
rrena dela eta. Aita Donostiaren  
kantak ere gozatu dituzte polo-  
niarrek, eta oso atseginak izan di-  
tuzte Asketa abesbatzaren do-  
inuak. Kontzertuetara jende asko  
hurbildu da Joxe Mari Fagoaga  
abiesbatzako kideak adierazi due-  
nez. «Jende asko etorri da gure  
musika entzuterat, nahiz eta eze-  
zaguna izan. Berehala zutitzen  
ziren bigarren kantarekin eta  
txaloka hasten ziren. Hori bene-  
tan eskertzekoa da. Kontzertuak  
amaitu ondoren beti beste kanta  
bat eskatzen ziguten. Gure musi-  
ka oso gustukoa izan dute, eta ho-  
rrek asko pozten gaitu».

Hemengo doinuak ezagutzeaz

gain, dantzak ikasteko asmoa  
ere adierazi zuten, eta nola edo  
hala arin-arinak eta porrusaldak  
dantzatu zituzten. Polonian egon  
diren bitartean bertako familiek  
ostatu eman diete Asketa abesba-  
tzako partaideei. Joxe Mari Fago-  
agaren hitzetan «tratua ezin ho-  
bea izan da. Oso harreman es-  
tuak izan ditugu, nire ustez gehie-  
gi eman digute, zuten guztia ematen  
saiatzen ziren, benetan jende  
jatorra ezagutu dugu. Agurra tris-  
tea izan zen eta berriro noiz buel-  
tatuko garenean zain geratu dira».  
Behin bidaia bukatuta, atsede-  
naldi labur bat hartuko du Bau-  
tista Irazoki apaizak duela 10 urte  
zuzentzen duen abesbatza ho-  
nek. Dena den, antzeko bidaiaren  
bat egiteko gogoa piztu zaie.

→ Idoia Martinez-Barranco

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Domisaindu eguna

Santu Guzien Egunaren atarian, hilerri-  
buruzko erreportaiak dakar 'Ttipi-ttapa'  
hamabostekariko azken zenbakiak, Aitor Aro-  
zena eta Pello Apeztearearen eskutik. «Azaro-  
aren lehenean, Domisaindu edo Santu Gu-  
zien egunean, lorez eta ototzez beteko dira  
hilerri edo kanposantu guztiak. Gure difun-  
tuak gogoratzeko egun berezia baitugu egun  
hori. Azaroaren bigarren eguna, elizaren egun-  
eguna, hildako guzien oroitzapenari dagokio-  
na, hilabetearen lehen eguna erabiltzen du  
gizartearen gehiengoak horretarako. Egun  
horretan itxura bikaina agertuko dute kan-  
posantuek, baina urtean zehar nola egoten


dira?». Artikuluaren hasieran egileek plaza-  
ratutako galderak aurrerago du erantzuna.  
«Gaur egun herri gehienetan ezagutzen  
dugun kanposantu ereduak joan den mende-  
koa da. Aitzinetik, elizan bertan -Lesakako  
elizan, oraindik ikus daitezke familien abize-  
nak edo etxe izenak aulkietan- eta gero eliza  
inguruan -Sarako hilerri zaharretan bezala-  
lurperatzen ziren hildakoak. XIX. mendeko  
eredu hau, ordea, arazo nagusi batekin to-  
patu da mende honetan, leku eskasia, ale-  
gia. Hori dela eta, zenbait herritan, kanpo-  
satuen anplazioa egin dute berriki. Donez-  
teben, adibidez, joan den urte bukaeran 108

horma-hilobi egin ziren, Donamarian, kan-  
posantu guztia horma-hilobiekin osatu dute,  
eta Saran, eliza ondoan duten kanposan-  
tuaz gain, bertze berri bat egin zuten, duela  
hamabortz bat urte».  
Etxalarko apez Pello Apeztearearen ustez,  
«gure hilerriak nortasuna galtzen ari dira,  
hiri handien antzera marmola eta toki gu-  
zietako formak nagusitzen baitoaz. Horretaz  
gain, Domisaindu edo Santu Guzien egun-  
an hilerriak garbituak eta lore berriz apain-  
duak agertzen badira ere, ez da berdin ger-  
tatzen urte guzian. Herri batetik bertzera ere  
alde handia dago».

Donesaturdiko  
oilarra  
lumutzen  
Juan Kruz Lakasta

### Biguina

Zein izen duen, zein abizen  
duen eta non bizi den aski ongi  
dakit. Haatik, ez dut aipatuko.  
Hogeita sei urte ditu, eta duela  
hamar urte institutuan ikasten  
zuen. Duela hamar urte ni ere  
institutuan nenbilen. Han eza-  
gutu nuen. Garai hartan telebis-  
tan Chispas izeneko kolonia ira-  
gartzan zuten. Pubertaroan  
murgilduta, hormonon zurrun-  
biloaren poderioz pikor mordoa  
eta besape errebeldeak zituzten  
neska-mutikoentzako kolonia  
zen (ongi pentsatuta, pikorren  
eta besapearen arabera, puber-  
taroan segitzen dut). Iragarkian,  
neskato batek abesti biguin  
itsaskorra abesten zuten, aipa-  
tuz lehen lagunak, lehen  
musuak... Ildo biguin horri hel-  
duko diot. Izan ere, zutabe  
honetako protagonistarekin  
batera egin nituen lehen boro-  
tak, egin nituen lehen grebak,  
egin nituen lehen lasterkaldiak  
poliziarren aurrean (aurrean,  
baina urruti, beti koldar hutsa  
izan bainaiz), ikusi nituen lehen  
kontzertuak, jaso nituen nes-  
kengandik lehen kalabazak, bai  
eta baietzak ere (tamalez, kala-  
bazak baietzak baino askoz  
gehiago izan ziren)... Lagun  
minak ginen, eta eztabaida  
gutxi izaten genituen, baina  
fuerteak. Politika izaten zen  
haserre urri bezain bizi horien  
sorburua. Haren irudikoz, bigui-  
negia nintzen.



Egun bere emaztea denare-  
kin elkartu zenean urrundu  
ginen, eta azkenean pista galdu  
nion. Haatik, joan den asteazke-  
nean, inondik inora ere espero  
ez nuen tokian eta moduan  
topatu nuen. *Solidarioek* ekin-  
tza egin zuten Diputazioan, ate  
nagusian 400 kiloko bidoi bati  
kateatuz. Han ikusi nuen aspal-  
diko laguna, eguzki betaurreko  
beltzak jarrita, berokiko lepoa  
gora altxatuta, txapel gorria  
aurrera botata, eta mailu  
hidraulikoa eskuartean. Foru-  
zaina da, eta bidioia hautsi zuen.  
Berak ez ninduen agurtu, ez eta  
begiratu ere. Nik «Chispas!» eta  
hemen idatziko ez ditudan bes-  
te zenbait gauza fuerteagoak  
pentsatu nituen, baina ez niz-  
kion esan. Biguinegia nintzen,  
biguinegia naiz.



# Anorexia eta bulimia oparotasunaren sindromea?

Beste herrialde garatuetan bezala, Nafarroan ere gero eta gehiago dira gaixotasuna duten gazteak

Anorexia eta bulimia kasuak gero eta maizago gertatzen dira gure herrialdean, eta, batez ere, azken hiru urteetan. Jateko ohituren arazo soilak diruditen arren, gizakia egoera horretara bultzatzen duten bestelako faktoreak daude sakonean.

ELIKADURA OHITURETAN ARAZOAK BETI IZAN DITU gizakiak. Nolanahi ere, azken urteotan arazo areagotu egin da eta gero eta gehiago dira anorexia eta bulimia deitzen diren gaixotasunak pairatzen dituztenak. Elikadura ohituren arazo da anorexia, eta pertsonak berak eragindako pisuaren kontrol zorrotzean oinarritzen da. Bulimia, aldez, elikagai-portaeraren kontrola galtzean datza. Gaixoak denbora epe oso laburrean janari izugarri barneratzen du eta jarraian jarrera orekatzaileak eragiten ditu.

Nafarroako Gobernuak Osasun Sallak emandako datuen arabera Adimen Osasun Zentroan 151 kontsulta egin ziren bitartean 1996an 312 izan ziren. Beraz, bi urtean kopurua %100 igo da. Margarita Aginagak Iruñeko Ermitagañako Adimenerako Osasun Zentroan egiten du lan, eta anorexia eta bulimia tratamenduan aditua da. Aginagak dioenez herrialdean 90eko hamarkadan hasi dira anorexia eta bulimia kasuak nabarmentzen. Nolanahi ere, azken hiru urteotan igoe-

**Maria Hernandez**  
anorexikoa

«Egunero janariarekin pultsoa egitea da. 'Jatea baino gauza errazagorik...' esaten diot neure buruari baina askotan ezin dut deus jan»

ra oraindik azpimarragarriagoa dela dio. Berak emandako datuen arabera, 1994an 104 paziente berri izan ziren, hurrengo urtean 117 eta 1996an 133. Gorakada etengabekoa izan da baina anorexia kasuak bulimiakoak halako bi dira. Era berean, gaixotasunak batez ere emakumearengan du eragina, pairatzen dutenetatik %90 emakumezkoak baitira. Bulimiak eta anorexiak badute adina ere; orokorrean nerabezeroan gertatzen dira kasuak eta 14-25 urte bitarteko gazteak dira. Dena den, joera hori ere aldatzen ari da, egun gero eta gazteagoak baitira elikatzeke ohituren arazoekin adimen zentroetara hurbiltzen diren neskek.

Gero eta gazte gehiagok anorexia edota bulimia zergatik duten azalzerakoan faktore asko hartu behar direla aintzat diote adituek. Aginagaren iritziz, «elikadura arazoak betidanik gertatu izan diren arren, Haynal-Pasini psikologo italiar batek definitzen ditu oparotasunaren sindromea bezala. Normalean Lehen Munduko gune industrialean eta hirietan gertatzen dira. Dena den, azaleko elikadura aldaketa horien atzean, bestelako arazo sozio-kulturalak ere badaude eta erabakigarriak dira». Anorexia duena porrotaren eta baztertua sentitzearen beldur da, estresari eta beste hainbat egoerari zailago egiten dio aurre eta beste-tekiko harremanak izateko arazoak. Orokorrean oso zorrotzak dira beren buruari, eta, baztertuak daudelako kezka sentimendu hori dela eta, oso kezkatuak daude arrakasta lortu nahilarekin.

Gainera, arrakasta hori ikasketekin edota lanarekin ez ezik, gorputzaren irudiarekin uztartzen dute. Ermitagañako Adimen Zentroko psikologoaren ustez, azken

alpapenean komunikabideek duten eragina «erabakiorra» da. «Komunikabideek emakumearen arrakasta duen aspektu fisikoan oinarriturik aurkeztu digute, arrakasta horretan bakarrik oinarrituko balitz bezala, eta hori faltsua da». Irudiarri gero eta garrantzi handiagoa ematen zaion gizartearen egoera, gaixotasun bion atze-



Gazteak eta neskek dira, batez ere, anorexia eta bulimia jasaten duten pertsonak. ● LUIS AZANZA

## Lagutza taldeen lana

Anorexiak eta bulimiak gazte askorengan duen eraginaz oharturik Tuterako Andrea zentroak laguntza tadea jarri du martxan. Lanean hilaibeteak badaramatzate ere, gaixotasuna duten lehen neskek bertarazten hasiak dira zentroa. Marian Perez psikologoa da taldeaz arduratzen dena eta oraingoz lau neska ditu. Larunbat goizero bitartean gaixotasunak familian zein norbanakoan sortzen dituen arazoak mahai gainaratzeko eta, ahal den heinean, irtenbide egokia aurkitzeko. Neskek anorexiak edo bulimiak sortzen dizkien kezkak, arazoak eta izuak elkartrukatzeko dituzte. Hara hurbiltzen da larunbatero Maria Hernandez, 22 urteko administratzailea eta egun langabezian dagoena. Berak anorexia du eta gurasoek bultzatuta zortzi hilaibete daramatza Andrea joaten. Mariarekin batera Ima Benitez 30 urteko elektrikaria ere egoten da. Imak anorexia eta bulimia pasatu zituen eta orain arazo hori duten neskek laguntzera joaten da.

Hamabost urte zituela hasi zen jateari uzten eta 23 urterarte gaitza pairatu omen zuen.

an ixura ona izateko ametsa baino zerbait gehiago badago. Gazteak jateari uzten dio edo barrapaladan irensten du janaria depresio eta antsietate egoeraren batean dagoelako. Anorexiak zein bulimiak eragiten dituzten ondorio fisikoak oso larriak dira eta anorexiaren kasuan heriotza ere gerta daiteke. Jakirik ez sartzen, besteak beste,

Mariak, berriz, bi urte zituela jateari uko egin zion. Arazoirik gabe eta kontrolatu zuten kontrola galdu zuen. Egun kontrolean zitaion aurkitzen saiatzen eta normaltasunera itzultzen. Imatz berea autogestima arazoak izan zirenean zeure burua bategarri duzulako da. Niretzat autoestima da eta hona etortzen bakarra hartzen zara». Mariak aldez eta hasi zen janariarekin arazoak aurkitzeko modu jakin batean eragin arazoak. Ezin du esan zergatik sartu gorpul zoro noretan. Ez dut uste iniduenik maite baina behin hasi ezin duzu kontrolatu. Biek hilaibete zuten, azala eta ilea ahultzen zuzkion eta ahuleziak jota denboran ziren. Maria etxetik kanpo ikaslea eta 25 kilo mehetu zen bitartean arazoak ezberdintzen izan zen. Elektrokardiograma bikoiztu eta 10 kilo argaldu zen hiru hilaibete baina segituan bulimia jasaten hasi zela mehetu ondoren jan eta jan hasi zuten joan zitzaizdan. Ez nuen gaitza baina libraga-

riak eta gosea kentzeko pilulak hartzen nituen unecoro. Pisu aldaketa bortitzak izan nituen, harrapazka jaten nuen eta gero lur jota sentitzen nintzen. Ez da txorakeria, hiltzeraino irits zaitzake, bihotza gogoratu du Imak. Konturatu zirenerako arazo eskuetatik joan zitzaion. «Ez duzu arazo kontrolatzen, hark kontrolatzen zaitu», diote.

Sendatze prozesua motela da. «Egunak izaten dituzu. Egunero-egunero, minutuoro borrokatzen zaude eta aldaketak ez dituzu antzematen. Hori da gogorra, zuk jarren duzu borrokatzea baina oso motel zozaz», azpimarratu du administratzailea. «Jatea baino gauza errazagorik...» esaten diot neure buruari, baina askotan ezin dut. Egunero janariarekin pultsoa egitea da. Janariak ez dit nazka ematen, amets egiten duzu janarekin baina gero plater aurrean ez dudala janen esaten diot neure buruari». Baina horrelako egoera batek, gaixoa ez ezik, ondokoak ere azortzen ditu. Familia eta lagunak laguntzen saiatzen omen dira baina askotan alferrik. «Etxeko-

asko sofitzen dute zu ere sofitzen ikusten zaituztelako. Eta egoera oso tirabiratsua da ez dakitelako nondik jo. Ez naute jatera behartzen baina asko kezkatzen dira».

Dena den, asko kostata bada ere, normaltasuna berreskuratu daitekeela dio Imak. «Zailena normaltasuna berreskuratzea da. Niretzat jan kopuru normala dena besteentzat ez da hala gertatzen. Finean, oreka bilatzean datza gakoa. Orain ongi nago eta gaitza gaitz gaitz dudala esan dezaket». Mariak ezin du gauza bera esan. «Kilo batzuk irabazi ditut, osasunez hobeki nago baina oraindik ere nire gorputza bete ikusten dut. Ez dago esaterik pasatu dela. Konturatzeko zera ez zela lehengo». Pertsonalitatea aldatzen dizu eta zutaz jabetzen da. Nolanahi ere, ez du itxaropena galtzen eta Imaren kasua jarren du eredu. «Askok laguntzen dit, erortzen naizenean bera jarren dut eredu eta bera atera bada nik ere lor dezakedala diot. Askok deprimitzen naiz eta hortik norbait atera dela sinistek asko itxaropena ematen du. Horrelako egoera batek asko hurperatzen zaituelako».

Margarita Aginaga

«Anorexia eta bulimia duten %90 emakumezkoak dira. Itxurazko elikadura arazo horien atzean bestelako arazo sozio-kulturalak ere badaude eta erabakigarriak dira»



### Lan luzea

Anorexia eta bulimia kasuak sendatzea lan zaila eta luzea da, gaixotasunok psikikoki zein fisikoki arazo larriak sortzen dituztelako. Aginagak azaldu duenez, «lehenik eta behin, pertsonaren aspektu fisiko hartu behar da kontutan. Batez ere anorexia larria duten gaixoei arriskua garrantzitsua da eta elikadurari erreparatu behar zaio. Behin gaixoarene egoera fisiko aztertuta behar duen tratamendua zehazten da. Aldi berean, tratamendu psikologikoa behar du, depresioak eta antsietate egoerak jasaten dituelako». Margarita Aginagak anorexia eta bulimia duten neska talde banarekin lan egiten du astero. Batzuek taldeko lanaz gain bakarkako terapia jarraitzen dute. Osatze prozesuan, hala ere, familian duen zeregina oso garrantzitsua dela azpimarratu du. «Familian horrelako arazo bat gertatzean gatazka bat sortzen da eta kontrol mekanismoak sortzen dira. Horrek guztiak gatazka sortzen du pazientearengan eta haren inguruan. Beraz, hiru alorretan lan egiten da. Aspektu fisikoaz gain, gaixoarene psikologian taldeko edo bakarkako, eta familiarekin». Tratamenduan gaitzaren alde psiko-sozialak eta familiarak duten eragina aztertuko da eta nola ikasi arazo horiei aurre egiten, gaixoak janariarekin duen arazo horri erantzuteko erabiltzen baitu. Hau guztia aintzat hartuz, «oso garrantzitsua da elikadura arazoak modan dauden gaixotasunak direla oaztertzea, susmo horrek erakarria egiten duelako gaztearengan. Bestetik, desdramatizatu egin behar da, kezkatzeakoa da baina ez da gehiegi larritu behar eta familian agertzen diren errudun sentimenduak ekidin behar dira».

Aginagak adierazi duenez, sendatze prozesuak lau-sei urte iraunen du. Luzea, garestia eta familiarantz nekoso izan da. Hori dela eta, familian hainbat gatazka sortuko dira. «Batez ere sortzen diren gatazkek kontrolaren ingurukoak dira. Gaixoa bera zer-nola jaten duen kontrolatzen ari den moduan, kontrol bera sortzen da familian. Noiz jaten duen, jaten duena nahikoa den, goitik egiten duen ala ez. Mahaian zein hortik al alerta jokaerak sortzen dira eta gaixoko hiri amenazu gisa hartzen du. Aldaketa lagundu beharrean oztopatu egiten da, askotan». Aginaga hilean bitan biltzen da tratamenduan dituen nesken gurasoekin. Adituaren irudikoz, familiaren eginbeharra ez da kontrola baizik eta laguntza ematea, horregatik familiako beste kideen jarrerak aldatzen saiatzen da. «Familia ez du kontrolatu behar, baizik eta lagundu egin behar du osaketan. Gurasoek esan behar dute zer jan, zer

berbitzatu. Zaila da hori kontrol bezala ez ikustea baina larrialdi egoerak saihestu behar dira». Anorexiaren kasuan hain da handia eragiten duen distortsioa, nahiz eta neskek oso argalak egon oraindik ere gizona ikusten dute euren burua eta kezkatuak daude pisuarekin. Horretan lan egin behar dute egunero gurasoek, argudio baliagarriak eman arren ez baitie balio. «Ez dira gai hortik ateratzeko. Kontrola gaitzkeko beldurra dute eta uste dute euren jarrera kontrolatzen dutela baina justu kontrako gertatzen da, aresetanaren eta jateko gogoaren instintuak erabat nahastuak dituztelako. Anorexia dutenek ez dute behin ere goserik, eta bulimia jasaten dutenak ez dira sekulan asetzen». Gaixoa sendatzerari iritsiko den arren, bidea «konplikatu» da. Denaden, gaixotasun biak askotan bata bestearen ondoren datozten arren, bulimia errazagoa izan da iragaiten. «Bulimia duen bat sendatzea errazagoa da arriskuak ere txikiagoak direlako anorexiaren baino. Anorexiaren heriotza arriskua ere izan daiteke, gaixoak ez duelako jaten».

→ Irene Arrizurieta



Ermitagañako Adimenerako Osasun Zentroan tratatzen dira anorexia eta bulimia. ● LUIS AZANZA



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Etxepareren 60. urteurren ixilekoan

Ez da makala gero Etxepare guztien arteko elkar-lehia,  
euskarazko unibertsoaren aberasgarri



«Eskual literaturari nahi badugu bizi berri bat eman, eta horren medioz eskuara, gure mintzaira, xutik atxiki, ez dugu lokartu behar edo gibelerat so egon. Ez du horrek erran nahi gure aintzinekoak bazterrerat utziko ditugula. Ez ditugu zahar gazten arteko lokarriak hautsi nahi ezdeus batentzat. Elgarraren laguntzaren beharra badugu. Baina eskuaren batasuna ez badugu egiten, xahu gure eskuara maitea. Batasuna! Batasuna!».

Jean Etxepare Landerretxe dugu horrenbesteko segurtasunez euskaldunok oro batu beharko gaituen ezinbesteko euskara batuaz mintzo zitzaguna. Ez zegoen oker bada, hatik, sen finduaz hausnartua, ezin egiazaturik geratu zitzagun, herioa tartean, lagun goiztiarra izan baitzuen. Arbidetxaldekoa Garazi aldeko Jatsun sortu zen 1937.eko urriaren 3 lan, orain dela 60 urte beraz, eta geure aburuz, arrazoiak badira ere, bagaude egon, honetan ere oihartzun haundirik gabe igaroko dela eguna. Agian, Jeanek berak ere halaxe nahiago zukeen, baina ziurtasun horretan kontsolatzen gareno, ahanzbide doilorearen labantzen ari zaigun ospakizun eguna, euskarari opa ohi diogun beste arlauza astuna hilari eskeiniz.

Guketx, eta halaxe agi ez dadin, bihoaz Etxepareren gaimeko zertzelada bakan batzu, ausaz Jatsukoaren oroipenaren pizgarri.

Ez da Etxeparerena euskal literaturaren historian ezezagun gerta litekeen deitura. Bernardetz gainera, Jean mirikua eta Pierre apeza Etxepare Bida-gorri anaiak, edota Bigotzariko Areso aita frantxikotarrak baimendu Tierceren esku liburua —Baiona, Lasserre, 1862— izenburukoaren egilea zen Etxepare fraidea. Ez da makala gero Etxepare guzti hauen arteko elkar-lehia, euskarazko

unibertsoaren aberasgarri gurki.

Gure Jeanen eitea, bizitza osoan zehar larriki oldartu zuen osasun exkasak moldakatu zuen hein batez. Eskoletan zegoela, gaixotu eta goatzean luzaz iraun zuen, sekula sendatu ez zela zeharo. Laguna zuen Piarres Charrittonek ixil, goxo, geldi, bakarzale eta langile margotu zigun. Goi mailako ikasketak Baionan burutu zituen, eta hartan ere izkiriatu zizkigun lehenbiziko lanak. Ikasbidea amaiturik, Donapaleuko Lurberri izeneko entrepresan sartu zen idazkari, baina handik gutxira Hazparnen zabaldu zuten ikastegi teknikorak aldatu zuen pausalekua, irakasle laguntzaille gisa aritzeko. Betierean jada arrailatu gorputza kitzikatu zion gaixotasunak gazte pitzatu zuen betiko, eta 1961.eko abenduaren 10an hil zitzaigun.

Gure Jeanen ibilbide literarioak antzerkigintzan du hatsarri lehen, nahiz, ezagun litekenez, ipuingintzan izan duen segida eta goren gradua. Baionan zegoela honako antzerkilan hauek ondu zituen: *Arno xuria* —Charrittonen arabera, galdurik dagoena, nahiz horren gaineko argumentua ezaguna izan—, *Gaxuxa* —Pagnollen Fanny idazlanean oinarria duena—, *Etxea*

*salgai* —Tchekoven La Cerisai lanean oinarriturik—, eta *Gazteluko alaba* —Ion Etxaideren *Markes baten alaba* antzertilana abiapuntu duena—.

*Mendekoste gereziak* eta beste hil ostean ageri zen, 1963.ean, Mitxel Labegueriek Baionan zuzentzen zuen Goiztiri argitaletxean. Liburu honen apailaketa lana Piarres Charrittonek hartu zuen bere gain. Jeanne Davant-Idiart andreak lagundurik. Geroantzean, estraineko edizio horri falta zitzaizkion hainbatekin ere, bigarrena apailatu du Inazio Mujika Iraolak, egun, eskuragarriena gerta dakigukeena, Erienen, 1991.ean. Ipuin hauexek 1957.etik 1961.era bitartean *Herria*, *Gazte*, *Gure Herria* eta *Panpin* aldizkako paperetan plazaraturiko kontakizunak dira, bai Etxepareren izenean, bai noiz-edo-noiz Jatsukoak erabili ihizgorri edota John de Cize ezizenen azpian. Guzien izendatzeko hautaturikoa Euskal Kulturaren Alde erakundeak 1959.ean saritutako lan baten izenburua dugu, Marijane Minaberri eta Julene Azpettia gailenkideen lanen aitzinetik, haur ipuin lehiaketan lehenbiziko sariduna suertatu zen *Mendekoste gereziak* alegia, nazioarteko usadiozko ipuindegian arras ezaguna den *Txokolatzeko etxetxo* horren aldaera xarmangarria hots:

«Primadera etorri zen. Bazterrak oro kanbiatu ziren. Dena hosto eta belar perde, dena lili... Bainen mendi zoko hartan betiko primadera zen. Haurren begiak aseak ziren, enoatuak, akituak, beti bereri beha. Mendekoste gereziak bazirela hautemana zuten, mendiaren bestaldean. Mendekoste gereziak, gorri-gorri, hosto perden artean. Bainen etxe horren jabea agertzen bada? Makil bat eskuan heldu bada bi haurrak gereziondoaren kaskoan direlarik? Ai! Ei! Ai! Ei!».



etorri ahalean

Patziku Perurena



## Zubia eta zoria

JUAN DENEKO BATEAN, Hiru Trukuren zintan 'Gautxu Baten' izeneko balada aditzen nengoela, honako pasartetto honek para nau gogoetan:

*neuk eroango zaitut zu,  
zubi txikitxo bat irago eta  
nire etxea an dosu.*

Euskal baladetan eta orohar erromantze zaharretan maiz ageri da zubia, bi maitaleen arteko menturaren froga moduan, eta nago, goiko horretan ere, ez ote duen zentzu sinboliko berbera.

Mutikozkorra nintzela aditu eta ikasi nuen berriz, honako irrikanta ezagun hau Goizuetan:

*Bartolok egin omen du  
lastozko zubia  
haretan pasatzeko  
bera ta nobia,  
pasatzen asi omen da,  
ta erori zubia.  
Bartolok artu omen du  
ipurdiko haundia.*

Horretan ere maitale frakasatuaren sinboloa hartzen ditu zubiak; izan ere, lastozko zubia egin baitu gizajo pobreak, andregaita bereganatzeko frogatzat, baina, hankaz gora joan da gizajoa, eta andregaita ordez «ipurdiko haundia» irabazi du, hain zuzen, euskaraz «frakaso» esan nahi duen lokuzioa. Bartolo izena bera, maitale inozoaren sinbologia indartzera dator.

Europako literatura zahar guzian hagitz hedatua den beste arketipo literarioa, zazpi arkuko zubia iragoteak erakusten digu, eta euskal balada eta kopla zaharretan ere maiz ageri da, Ana Juanixe izeneko honetan ageri den bezela:

*Bordegariaren zaldie  
lau anketan da zurie  
zazpi pausotan pasatuten dau  
zozti arkuko zubie.*

Halatsu Berdabioren zaldiak eta beste askorenak. Zazpi arkuko zubi sinboliko honen usarioak, sineskera musulmanaren zazpi betebeharratan ditu bere

erroak, eta batean huts egitea aski zen infernura erortzeko. Sinbologia berbera betetzen du, zazpi arkuko zubian iragotzen den gure zaldi majikoak: ongile badator onik iragoko du zubia, baina gaizkile badator bertan galduko bere burua.

Harritzeko bada ere, Erroma zaharreko pontifize tituluak, lehen enperadorearena zenak, eta egun aitasantuak bereganatzen duenak, zubigile esan nahi du: pontifex, izan ere, mundu hone-tatik besterako zubian, zerurako edo infernurako sententzia ematen duen epailerik gorena izaki.

Hala, zinetan bezala iruditzen, gizakia munduan barrera dabilanetik, zoria aldatzeko arriskua dakar zubiak. Eguteratik elutsera iragotzen gaitu, lurralde bahituetatik lurralde libreetara, lehorretik itsasora, gau ilunetik egun argitara, edo lurretik zerura Jainkoaren zubia edo ostar-kua bitarteko.

Hona arte aipatu ditudan sinbolo berberak biltzen ditu ortzadarrak ere, zubiaren irudia bitarteko: Erromako Zubia, Frantziako Zubia, San Nikolasen Zubia, San Martinen Zubia, San Migelen Zubia, Jainkoaren Zubia... eta harritzeko bada ere, zubi horiek guziak, gure historian kastigu edo barkazio emalle izandu dira: Jainkoa, San Miel, San Martin, Frantzia, Erroma...

Zubiak duen sinbologia unibertsal horrekin batera datoz R. M. Azkuek jaso zituen sineskerok ere: «Ostreilakak lurra jotzen duen lekuan mutilak neskatx egiten omen dira eta neskatxak mutil. Erromako zubi azpitik igarotzen dena, gizona bada emakumetu egiten da, eta emakumea bada gizondu.»

Goizuetan, xaharrei aditua dakit, Urumea erreka barrera Zubi Haundiko arkupetik iragotzen omen zirela 1855eko kolera beltzaren kutsutik libratu nahi zutenak.

Kontuak kontu, mereziko luke euskal literaturan zubiak bereganatzen duen aspaldiko xarma metaforikoa ongi bilatzeak.

## Ziria

• Motxorrosolo •

Pepe Lopez

TEKNIKA HANDIKO JOKALARIA, BATEK BAINO GEHIAGOK GOGOAN DU Etxabakoizko zelaian guztion gozamenerako egin jokaldia, zelai-erditik abiatu, oztopo guztiak saihestu, atezaina barne, eta gola sartuta, itzultzean, «Pele ez da hila» oihuka. Iruñeko Eguesera bidaia egin zuenerako soziolista kualifikatua. Agedna-ren aferan bestelako zelaian bere dohain teknikoak erakusteko preste azaldu zitzaigun. Izkin egiten jaioa dela ezin uka. Cordovilla lagun, bere tre-bezia erakusteko parada ondoko hilabeteotan. Boterearen arrimoan edozer egiteko gai da gure Pele Lopez.



**Jon Pellizer**  sukaldaria

# «Janari artean mingaina askatzen hasten da jendea»

Iruñeko Udalak antolatutako euskarazko sormen tailerretan sukaldaritza irakasten du Jon Pellizerrek. Helburua euskara mintzatzea izanik, eltze eta janari tartean, usain eta zapora gozoen laguntzaz edo, ikasleek mingaina gehiago askatzen omen dute. Dena den, euskara ez ezik, plater onak egiten ikasteko egun hain preziatua den denbora beharrezkoa dela dio.

**S**UKALDARITZA IRAKASTEA EGUNERO sukaldean sutondoan aritzea baino erosoagoa dela badio ere, asteburuetan jatetxeren batera joaten da, praktikatu ezean galtzen den trebetasuna berreskuratzera. Nolanahi ere, ikasleen aurrean eskuak azkar askiak dituela frogatzen du astero.

## ■ Zer irakasten duzu ikastaroan?

Eguneroko platerak egiten saiatzen gara. Ikastaroa ez da profesionaleri edo sukaldaritza ikasleei zuzendua, helburua euskara mintzatzea baita. Asteartero arratseko zortzietatik hamarrak arte aritzen gara; ordu eta erdi otordua prestatzen egin ondoren, denon artean egin duguna afaltzen dugu.

## ■ Non dago plater on baten oinarria, egilean, neurrietan edo lehengaitan?

Lehenik eta behin, osagaiak onenariok izan behar dute, eta gero, sukaldariaren lana dator. Kopuruei gagozkiolarik ez da beharrezkoa oso zuzena eta zehatza izatea. Horrek esan nahi du garrantzia baduela plater bati tipula bat edo bi botatzeak, zaporea, eta ehundura aldatuko direlako, baina gozogintzan baino askatasun gehiago duzu platerak egiterakoan. Gozogintzan beharrezkoa da errezetak dituen kopuruak matentzea baina sukaldaritzan libreagoa da. Sukaldari bakoitzak dituen trikimailuak ezagutzean datza gakoa. Nola lortzen da hori? Ariz eta sukaldezik sukalde ibiliz.

## ■ Trikimailu horiek erakusten saiatzen zara ikastaroan?

Bai, ahal baldin badut bai. Zerbait gaizki ateratzen bada saiatzen naiz zergatiak azaltzen eta zer modutan egin daitekeen. Nolanahi ere, plater on batek denbora behar du eta horren faltan gabiltza gaur egun.

## ■ Denbora gutxirekin ezin daiteke plater on bat egin, edo?

Egin daiteke baina plater batek bere denbora behar du. Ateratzeko. Ez da gauza era berrin



soslaia

bat benetako eltze batean edo presiozkoetan. Zaporea, gustua eta ehundura aldatzen da eta plater on batek behar du bere denbora, zaporea eta arreta, eta hori ez badiozu ematen ez da goxoa aterako.

## ■ Euskara ikastea gogorra dela diote; plater goxoak egiten aritzeak languntzen du hizkuntza hobekiago barnertzen?

Ikastaroaren helburua euskaraz aritzea da eta norbaitek sukaldean ariz ikasten badu askozaz hobeto. Egia da eramangarriagoa dela plater eta usain goxoan artean aritzea: eltze eta janari tartean jendea mingaina askatzen hasten da eta hori da lortu nahi dena. Ikastaroan, mingaina mugitzeko bi modu erakusten dira; batetik, euskaraz hitz eginez, eta bestetik, dastatzen ikasiz.

## ■ Beraz, euskaldunen jatun onaren fama ez ezik, sukaldari bikainaren fama egia bihurtuko dute zure ikasleek?

Jon Pellizer sukaldari iruindarrak Uharteko Bigarren Hezkuntzako Institutuan sukaldaritza irakasten die bergizareratze arazoak dituzten gazteei. Ikasteko gogorik ez eta, hamasei urterekin aitak gozotegi betera bidali zuen lanera. Gustatu eta Burlatako Sukaldaritza Eskolan ikasten hasi zen. Han bost urte ikasten egin ondoren, jaxketez jaxkete ibili zen trebatzen eta lanean gogor.

Hainbat jaxkete ezagunetan ibilia da, Luis Irizarren jatetxean Madrilen eta Arzakekin adibidez. Estatu Batuetan euskal sukaldaritza egiten ere aritua da. Sukaldaritza eskolak emateko deia onartu eta horretan hasi zen duela zazpi urte.

Klaseak ematen oso gustura dagoen arren, jaxkete bat zabaltzeko ideia ez du bazterten. Nolanahi ere, oraingoz, irakasletzan jarraituko du, nahi duena egiteko denbora asko uzten diolako. Euskaraz mintzatzen sukaldean bezain trebe ez den arren, ez du itxaropena galdu eta Nafarroako Gobernuaren euskaltegira joaten da egunero.

Oso zaila da. Gauza bat da eskola eta bestea jaxketea. Garbi dago Euskal Herri osoan dugun sukaldari kopurua ikusita zerbait berezia badela. Hemen ongi jaxkete ohitura dugu eta horrek badu eragina. Duela hamar urte modan jarri ziren sukaldaritza eskolak eta orain baditugu ugari. Horrek esan nahi du gero eta sukaldari

gehiago ateratzen direla, baina %5 bakarrik izanen da sukaldari. Sukaldari onek diru asko irabazten dute, baina horretarako batek daki zenbat urrats eta urte pasatu behar duzun trebetasuna eta eskarmentua lortzeko.

## ■ Non moldatzen zara hobekiago, ikasleekin ala sukaldean? Erabat ezberdina da batean ari

edo bestean. Erosoagoa da eskolak ematea. Dena den, horrek ez du esan nahi lan egiteari uzten diozunik, oporretan edo asteburuetan aritzen baina sukaldean. Aldatu behar banuke asko kostako litzaidake haria hartzea eta berriro trebetasuna lortzea. Ez baduzu praktikatzeko trebetasuna galtzen da; ezagupen handiak izan arren, uzten badiozu eguneroko praktika egiteari, trebetasuna galtzen duzu. Guretzat tresna garrantzitsuena eskuak dira, eskuakin egiten dugu lan, eta abildadea galtzen baduzu, akabo.

## ■ Hamalau ikasleetatik, hiru besterik ez dira gizonetzkoak. Eltze tartean, oraindik ere, gehiago aritzen dira emakumeak baina gizonetzkoak dute ospea.

Nik beti esaten dut etxeoandreek gizonok baino askoz hobeki egiten dutela sukaldaritza. Egunkarrietan agertzen ez den ezkutuko aparteko sukaldaritza egiten dute. Sukaldari onak jatetxetan bakarrik daudelako ustea ez da egia.

## ■ Bestela, gizareratze arazoak dituzten ikasleekin aritzen zara egunero lanean. Terapia ona da sukaldaritza?

Ez dakit terapia ona den baina batzuei behintzat asko gustatzen zaie. Horietatik lortzen baduzu baten bat sukaldari izatea guretzat oso lorpen garrantzitsua da. Zaila da gazteekin lan egitea baina lortzen baduzu erakustea nork duen zartagia eskuetan eta zure jokoan sartzen badituzu bergizareratzea lor dezakezu.

## ■ Gero eta sukaldaritza eskola gehiago daude herrialdean. Zer moduzko maila dute?

Euskal Herriko beste herrialdeekin konparatuz Nafarroan guztien atzetik goaz. Han eskola hobeak daude eta gehiago dira. Gainera pribatuak dira, ordaindu behar da eta jatetxetako sukaldari ospetsuek berek jarri dituzte eskolak. Eskola horietatik ateratzen diren ikasleak oso onak dira, goizean irakasten eta arratsaldean jatetxetan aritzen dira.

→ Irene Arrizurieta



## BEKARIO!

## ZALDI ERDA



### Nafar Kronika

Fermin Erbiti

### Politikaren merkealdia

Oraindik heldutasunera heldzeko bide luzea duen demokraziaren arazo larrietakoa politikarien maila exkaxa delakoan nago. Egunero jasotzen ditugun mezuak aztertu eta hortik atera litekeen konklusioa da politikan karrera egiteko kontuan hartu ohi diren meritua oso eztabaidagarriak direla, politikan baino ez baitira meritutzat hartzen.

Badira politikan sartu eta lanbide horretako funtzionario izateko ahaleginak egiten dituztenak, Horiek badakite xedea lortuko bada kontsignazale izan behar dela, beti «amen» norberak baino iritzi argiagoa duenari. Iritzi ofiziala ezagutu arte ez dira lasai mintzatuko eta beti bere egiten dute goitik datorkiena. Ba al da pertsona aspergarriagorik erantzuten hasi aurretik sermoia asmatzen zaiona baino? Ba al da politiko exkaxagorik pentsatzeko ahalnena ahantzirik egia saintua dutenen erranetara makurtzen dena baino? Ez dut uste, baina banaka batzuk kenduta, politikok buruz ikasiriko matraka botako dizute, behin eta berriro, tonu berean, sorpresarik gabe. Jasanezina.

Azpikeriatan trebeena ere ongi aritzen dira legebiltzar zein alderditan. Jende xuria, aurrez aurre beti hitz ederrak eta urrundu bezain laster labana sartzeko prest. Lan zikinetan maixu, ideologiarik gabekoak.

Zer dela eta hau dena? Lehengo egunean kargu publiko batean orain dela pare bat urte hasi zen batekin mintzatu eta, etsita, politikan argi jokatu eta pentsatzen segitu nahi dutenendako tokirik ez dagoela aitortu zidan. Dietak kobratzen jarraitzea eta hurrengo hauteskundeetarako zerrendetan egotea omen dira politiko gehienek helburu bakarra.

Duintasuna merkatzen den neurri berean garestituko da politikaren prostituzioagatik gizarteak ordaindu beharko duen prezioa.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Grados aretoan **Roberto Casado** eta **Elisabeth Colardek** txirula eta arpa kontzertua eskainiko dute datorren astelehenean, hilak 3, 19:00etan.
- **Castejon:** **Tapan Quartet** taldeak Indiako musika doinuaren kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Sarasate Kontserbatorioko auditoriumean tronpa kontzertua izanen da, gaur, 20:00etan.

### ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Carlos III aretoan **Juliantxo Irujoren** lanak ikusteko aukera dago etzi arte. Lanegunetan 19:30etatik 21:30tara dago zabalik eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Lekune galerian **Peio Irazuren** margoak ikusteko aukera dago datorren azaroaren 21a arte. Aretoa astelehenean ostegunera dago zabalik 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.
- **Burlata:** Udaletxeko Kultur Aretoan Cuberaren pinturak ikusteko aukera dago azaroaren 13ra bitartean.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** La zaranda taldeak *Quando la vida eterna se acaba* antzezlan taularatuko du etzi, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.
- **Iruñea:** *T'ombligo teatrok* balada tierna de un gamusino! lana antzeztuko du datorren ostegunean, hilak 29, 20:30etan Nafarroako Antzerki Eskolan.
- **Iruñea:** **Rakoto** taldeak bere ikuskizuna taularatuko du gaur, 20:00etan Kultur Etxean.

### BESTELAKOAK:

- **Iruñea:** NUPen **Xabier Garretak** «Nire bizitzaren 40 urte» diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, 20:00etan 08 gelan.
- **Donibane Garazi:** **Irulegi Irratiak** Gau Izarra antolatu du gaur, 20:00etatik aitzina. Afaria 70 liberetan izanen da (1.800 pezeta) eta harat bertaratuko

dira Iñaki Perurena harrija-sotzailea, Ernest Alkat eta Manolo Arozena bertsolariak eta Niko Etxart abeslaria.

- **Iruñea:** **AEK**ko Iruñezar euskaltegiak dendarri eta saltzailentzako ikastaro bereziak antolatu ditu. Klaseak 2:30etatik 4:00etara izanen dira eta bertan parte ahal izanen dute Alde Zaharreko dendariak zein beste auzoe-

takoek. Informazioa 21-04-33 telefonoan.

### ZINEA

- **Iruñea:** NUPen Europako zine klasikoari eskainitako zikloan *Chica de la fabrica de cerillas* pelikula eskainiko da filandieraz. Filma Osasu lkerketarako Eskolan botako da 20:00etan.

## Harri Fiction

